

A) BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGA:

Faktura osoa egin behar
nahitaez

- Oro har; salbuespenak
 - Fakturarik egin beharrik ez dagoen kasuak (3. art.) (*Ikusi beheko taula)
 - Faktura erraztuak
- Hartzailea enpresaburua edo profesionala bada.
- Hartzaileak eskatzen badu zergen arloko eskubide bat baliatzeko.
- Kargatik salbuetsitako Batasunaren barruko ondasun-emateak eta esportazioak, zergarik gabeko dendetakoak izan ezik.
- Zerga aplikatzen den lurraldean egiten diren zerga berezien kargapeko urruneko salmentak eta ondasun-emateak, Batasuneko beste estatu batetik datozenak (BEZ, 68. art.. hiru eta bost).
- Instalazioa edo muntaketa eragiten duten ondasun-emateak (BEZ, 68. art., Bi.2).
- Hartzailea ez enpresaburu ez profesional ez den pertsona juridikoa denean.
- Hartzailea administrazio publikoa denean.
- Baliokidetasun-errekargua (salbuespena: ondasun higiezin emateak).
- BEZaren araubide erraztua (salbuespenak: aktibo finkoen eskualdaketak eta sarreren araberako modulua).
- NAAREN araubide berezia (salbuespena: ondasun higiezin emateak).
- BEZetik salbuetsitako eragiketak, ondokoak izan ezik:
 - Ospitalizazioa eta osasun arreta; medikuntza edo osasuneko eragiketa profesionalak; odol, plasma, fluido emateak; estomatologo, odontologo eta antzekoenak; anbulantziak; landa-lurrak ematea konpentsazio batzordeei eta adjudikazioak; eraikuntzen bigarren eta hurrengo emateak; eragiketa salbuetsitako ondasun-emateak; kenkarirako eskubidea baztertuta eskuratzen diren ondasunen emateak.

(*)
Faktura egin beharrik ez

B) PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA: Jarduera ekonomiko baten bitartez etekinak lortzen zergadunek jardueran egiten dituzten eragiketen fakturak egin behar dituzte (bakoitza bere kopiarekin).